

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Gure enpresa eguneroko zereginetarako denborarik ez duten pertsoneri zuzenduta dago. Planbide enpresa adin guztietarako pertsoneri (*12 urtetik beherakoak ez*) bideratuta dago; hau da, norberaren denbora pertsonala kudeatzeko beharra dutenentzat zuzenduta dago. Horrek esan nahi du gazteak edo helduak izan daitezkeela bezero



12 urtetik beherako pertsonak ezin dute gure aplikazioa erabili. Mugikorraren erabilera adin hauetan ez da gomendagarria, kalte asko ekar ditzakeelako. Esate baterako, haurren depresio-arazoak eta antsietatea. Planbidek bezeroen ongizatea bilatzen du, eta mugikorrak arazo horiek eragin ditzakeenez, ez dugu hori baimentzen.




Bestalde, euskararen indarra handitu nahi dugunez, bereziki Euskal Herriko edo euskara hitz egiten duten pertsoneri bideratuta dago. Beste hizkuntzak ere jartzeko aukera dago, beste herrialdeetako pertsonak erabili dezaten. Baina gure helburu nagusietako bat hemengo jendeak erabiltzea da.



Gure aplikazioa erabiliko duten bezeroen kopuru handia ikasleak izango dira. Izan ere, aplikazio honek ikasleen lanak, azterketak eta abar planifikatzen laguntzen du, haien beharrak asetuz. Aldi berean, aplikazioak ordutegiak eta zereginak pertsonalizatzeko aukera ematen du, ikasle bakoitzaren beharretara egokitzuz.



Era berean, Planbide enpresak familiei lagunduko die, ez bakarrik etxeko lanak, hala nola garbiketa, erosketak eta beste eginkizun batzuk banatu eta kudeatzeko aukera ematen duelako, baita familia kideen hitzorduak, eskolako ekintzak eta bilerak antolatzen dituelako ere. Gainera, eguneroko errutina, hala nola bazkaltzeko orduak, ikasteko denbora eta atseden orduak ezartzen laguntzen du; izan ere, ordua iristen denean, alerta eta alarma (aukeratu dezakezu) batzuk ateratzen dira notifikazio moduan gogorarazteko.



Kirola praktikatzen duten pertsoneri ere zuzenduta dago. Aplikazio honek kirolarien entrenamenduen ordutegiak planifikatu ditzake; haien helburuak eta lehiaketa egutegiak kudeatzeko erraztasuna sortuz. Hau da, lehiaketen datak eta prestaketa faseak modu antolatuan kudeatzeko aukera ematen du, prestaketa egokia ziurtatuz. Gainera, errutina osasuntsuak ezartzen ditu: dieta, atseden denbora eta entrenamendu saioen arteko oreka mantenduz, osasuna zaintzeko.

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Beti ere, bezero berriak egon daitezke, enpresa askotan gertatzen den moduan. Gauza asko eskaintzen dituen bez, bezero asko izan dezake. Halaber, laguntzaile birtuala dagoenez, edozeinek edozein kontsulta egin dezake.

Planbidek, bere menpe ez dauden faktore batzuk ditu, eta faktore horiei ingurune espezifikoak deitzen zaio. Horrek esan nahi du, erakunde honi zuzenean eragiten dioten kanpo-faktore guztiak hartzen dituela kontutan horiek ondo gestionatzeko. **Ingurune espezifikoak** enpresarekin harreman zuzena duten elementu eta eragileak osatzen dute, ondoren aipatutakoak:

BEZEROAK

Gure aplikazioa, lehen aipatu dugun bezala, 12 urtetik gora duten pertsona guztiak erabili dezakete, baina bereziki, **denbora** behar bezala **kudeatzen** ez jakitearekin arazoak dituzten pertsonen zuzenduta dago. Hala ere, Planbide egunez egun antolatze diseinaturik dagoenez, edozein pertsonentzat ezin hobea da. Gure enpresak izango dituen bezero gehienak hauek dira; kirolariak eta ikasleak; izan ere, denbora falta gehiago dituztenak dira. Organizazio beharrak dituzten enpresak gure bezeroak izango dira ere; izan ere, lan prozesuak erraztuko dio Planbide aplikazioak. Beste aldetik, euskeraz erabili daitekeenez, Euskal Herriko enpresa eta jendearentzat interesgarria izan daiteke.

Hala ere, bi bezero motak, hau da, enpresak eta erabiltzaile independenteak, desberdin ordaindu beharko dute:

- **Enpresak** → Enpresak gure aplikazioa eskuratu nahi badute, langile kopuruaren arabera, hilabeteko kuota bat ordaindu beharko dute.
- **Erabiltzaile independenteak** → Erabiltzaile independenteak, gure aplikazioa dohainik eskuratu ditzakete, baina jardura "premium"-ak nahi izanez gero, bezeroak hilabeteko kuota bat ordaindu beharko dute.

KONPETENTZIA

Gure enpresak, alde batetik, konpetentzia handia izango du; izan ere, nazioarteko mailan denbora kudeatzeko aplikazio asko daude. Baina gure aplikazioak euskara ezartzeko aukera duenez, gure enpresak izango duen lehiakide nagusia Euskal Herrian sortutako softwarea izango da, euskaraz dagoelako. Hori kenduta, ez daude euskaraz organitzatzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten beste enpresa batzuk. Horrez gain, laguntzaile birtuala besteengandik desberdintzen gaitu. Laburbilduz, euskeraz erabiltzeko aukera egotea eta laguntzaile birtuala izatea oso garrantzitsua eta desberdina bihurtzen gaitu.